



Atakak  
Hasier Larretxea

Poesia hotza. Sekretu bat iradokiko balu bezala. Monotonia. Seriotasuna. Baina, zer helarazten du, finean? Beldurra ote dio sentimenduak azaleratzeari? Hizkuntza bera ere monotonoa egiten zait. Egia esateko, ez dakit zer esan nahi didan. Batzuetan, gauza batzuk iradokitzen ditu, baina benetan ba ote dago zerbait iradokizun horien atzean...? Hizkuntza-estetika ez dator bat nire estetikarekin, oro har. Hartu poema baten bi lerro eta ezaba ezazu edota gehitu beste poema bati, eta ziur aski ez da ezer gertatuko. Hertsiegia. Duina da, besterik gabe. Agian, hori zen egilearen asmoa: duina izatea. Asko al da hori? Gutxi al da hori? Auskalo... 54. orriko poeman sentimendua topatu dut, antzeman dut. “Heriotzak nirekin harrapa zaitzala” (58 orr.), eta nik, umore onez, zera arrapostu: “Aukeran ez. Mila esker.” *Irakurlekeriak*<sup>1</sup>. Badu nortasuna. “Batek errateko aunitz duenean, isiltzen ikasten du” (66. orr.), orduan pentsatu dut “Hori Tibeten ikasiko zuen...”<sup>2</sup> Ukitu mistikoa (susmagarria?). 74. orria: “eta beste batzuek gerrikoa erabiltzeari utzi behar izan diote (diogu). Bizitzan, lehenago edo beranduago, den-dena (“hori” ere) iristen delako”. Pittin bat ponposoa ote...? (“Ahanzturaren memoriarekin isil-gordeka”). Aldiz, zeinen polita Omar Pimienta delako poemaren intentzioa (79. orria). Liburu osoak badu letania-kutsua. -tako erlatibo gehiegi agertzen dira. Ez du ahalegin handirik egiten esaldiak/hitzak gozatzeko, edo hizkuntzaren musikaltasuna aurkitzeko. Nork bere estetika du. Estetika itur guztietatik edaterik ez dago. Baina, finean, helburuak (?) batzen gaitu. Duintasuna. Bai, nik horrela deituko nioke: duintasunaren poeta.

---

<sup>1</sup> “*Irakurlekeriak*” diot, baina neure buruari egiten diodan salaketa da. Azken finean, ez dago une jakin batean nahita distortsionatu ezin daitekeen testurik. Hori denontzat balio du, egile guztiontzat. Baina jakin ere badakigu burdina kolpeka lantzen dela...

<sup>2</sup> Beste *irakurlekeria* bat, nire aldetik.